

Kakagaleaz nator



Jose Ignazio Ansorena
MUSIKARIA

Honako hauek *Txirri*, *Mirri* eta *Txiribiton*-en disko batean grabatuak: “Kakagaleaz nator Erreteriatik, lau kuarto eman nituen egi-teagatik. Horra bada, osaba, alegratu bedi, kaka galanki egin det, eder eta lodi”.

Bada, epelak entzun genituen. Beti izan naiz, baina, kontu marroi hauen zalea, agian umetan gure birramona Jenerosak, eguneroko txizontzi saioa amaituta, emaitza erakutsarazten zidalako eta, ongi miatu ondoren, iritzi zorrotzak plazaratzen zituelako: “Ederrak gaurko kaka hauek! Arin samar dabil mutila... Ea zizarerik dagoen...”. Hau ere harena da: “Aita Santuak ere puzkerrak merke-merke”.

Gaztetan txalupan itsasora ateratzen ginenean, kuadrilako batek, *Hippiiek*, puzkerra botaz gero, denok uretara salto. Iraunkorrek atontzen zituen: puska batera txalupara itzuli nahi eta oraindik ere sekulako kiratsa. Jantzita harrapatuz gero, arropan itsatsita geratzen zen haren sustantzia ustez gaseosoa.

Mendira alabaren *Gustabo* zakurrak laguntzen nau. Behi gorotz *ensaimadak* maite ditu. Gainean etzan eta bueltaka, igurtzi egiten da. Etxerako itzulia, autoaren leihoak zabalik, hotzik handiena badago ere. Noizbait ertzainek gelditzen banaute, keru kontrol proba berriaren beharra ikusiko dute.

Kakapilari mesede handiak zor dizkiogu. Antzinako mitoak dioenez, *Sanson* indartsuak noizbait arantarrak akabatu nahi izan zituen,

fiesta handitan zebiltzala ikusi eta jelsiak jota. Harri handia hartu baina jaurtitzera zihoanean, gorotz handi batean irrist egin eta bakarrik Aballarriraino bota ahal izan zuen eta inor akabatu ez. Horrela deitzen zaio oraindik: *Sanson harria*. Inguruan maiz ibili da *Gustabo* nirekin, apika oraindik gorotz beraren gainean. Honek ikerketa antropologiko sakona behar du. Eta Jaurlaritzaren diru laguntza.

* * *

Egungo higiearen ohiturak klasista, burges eta antiekologikoak dira. Askok egunero hartzen dute dutxa, batzuetan hainbat aldiz eta barruko arropak ere egunero aldatzen. Gure zaharrek asteen behin *muda* eta dutxa... urtean behin, behar izanez gero noski. Horiek bai jakintsu, ekologiko eta berdintzaileak.

Ziur aski Trump tronpatzaile tronpatua orduo dutxatuko da, urrezko konketan eserita harrizko kakamokordoa atera ezinik ibili ondoren. Amona Jenerosak ere bazuen honelakoentzako izena: *Ezinlibrategi*. *Odoluzki muturra* ere gustatzen zitzaien.

Munduak irauteko aukerarik izatea nahi badugu, *Gustabo* bezain piztiak garela ezin ahaztu, tronpatzaileen eskolako lotsagabe ugariei zaunka eta ausiki egin ahal izateko.

Honela amaitzen dira bertsoak: “Jendeak egin arren irri-arra farra, fuera mokordoa eta biba kaka zaharra”. Horixe. ■

Kosmopoliten mikronazionalismoak



Edu Zelaieta Anta
IDAZLEA

Madrilen bizi diren jendakien bisita izan zuen lehengoan Sofiak, aspaldiko partez. Lehen platera bukatu aurretik jadanik ari ziren Kataluniako egoeraren ziurgabetasunaz. Bigarren platerarekin batean, Kataluniatik Euskal Herrira egin zuten bazkaltiarrek. Klasiko bat. Postreek ekarri zioten berari eskusiban bere ikuspegia azaldu beharra. Kafeari lehen zurrupada kentzerako, barrena deseroso sentitzen hasia zen. Katilua pausatu eta ondoan egin zuen galdera, bisitarien diskurtso *neutroa* uxatu nahian: zergatik diozue neu naizela nazionalista?

Inork ez zuen erantzunik eman. Kafearen mingotsa atxiki zitzaion familia giroari. Isiltasuna etorri zen geroago. Harik eta izeba batek, ez trebetasun gutxiarekin, ikusitako azken filma aipatu zuen arte. Zinematik literaturara egin zuten ondotik. Hala ailegatu ziren *On Kixote*-ren handitasunaz mintzatzera, batez ere Cervantesen lana irakurria ez zutenen aldetik. Klasiko bat.

Izan ere, halakoxeak dira kosmopoliten mikronazionalismoak: mikromatxismoen pare, oharkabean joaten dira, eguneroko harremanetan ezin erosoago etzaten diren arren. Beste batzuen gainean etzan ere. ■